

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Nerea Agirre Kortabarria

*Oñati,
Gipuzkoa
(1977)*

Aurkibidea



Biografia



Murgia auzoko Iziar Goikoa baserrikoa, ama bertakoa du eta aita Zubillagako Alkorta baserrikoa. 2 ahizpatan zaharrena da. Olabarrieta auzoan bizi da, Juanpueneko Iñaki Agirregabiriarekin, eta 3 seme-alaba dituzte: neska bat eta bi mutil. [Ingo Xonau!](#) proiekturako, Oñatiko noka jasotzeko egindako elkarrizketa. Amak bi alabei hika egin izan die, eta Nereak berak amarekin, ahizparekin eta alabarekin hika egiten du batzuetan, ez beti. Ingo Xonau! proiektuko lantaldekoa da.

Zintak

ONA-270

- **Proiektua:** Oñatiko noka: Ingo Xonau!
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2019-02-28
- **Iraupena:** 39 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

ONA-271

- **Proiektua:** Oñatiko noka: Ingo Xonau!
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2019-02-28
- **Iraupena:** 12 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Amak egiten dio hika

- **Erref:** ONA-270/002
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:01:05. **Bukatu:** 00:03:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Amaren bidez jaso du hitanoa, etxean. Bi ahizpei egin die hika amak, eta etxeko bi osabek ere bai. Aitak noizbait baina gutxi. Egiten duen apurra amarekin egiten du, eta orain ahizpari gehiago egiten hasi da. Amarekin lehen ez zuen egiten, eta orain ere gaiaren eta momentuaren arabera.</p>

2. Auzoan, hika egiteko ohitura

- **Erref:** ONA-270/004
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:03:42. **Bukatu:** 00:05:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Amak anaiarekin hika egiten du, eta ahizparekin ere bai. Aitak koinatuarekin ere bai. Auzoan gizonezkoek hika egiten dute beraien artean, baina emakumeek guztiekin ez (Kamelakoekin eta Azkarretakoekin egiten du amak).</p>

3. Amari hika egitea errespetu falta?

- **Erref:** ONA-270/005
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:05:22. **Bukatu:** 00:06:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Berak gogoan duela, betidanik egin diete hika, ume-umetatik. Amari hika egiten badio, batzuek esaten diote hori ezin dela egin, errespetu falta dela.</p>

4. Emakumeek Olabarrietan Murgian baino gutxiago hika?

- **Erref:** ONA-270/006
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:06:19. **Bukatu:** 00:07:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Murgia auzoan bada ohitura hika egiteko. Orain Olabarrietan bizi da, eta han ere batzuek egiten dute. "Tierra santa" deitzen zioten Olabarrietari. Andolatzakoa aipatzen du.</p>

5. Emakumeek hika egitea "atsoen" kontua

- **Erref:** ONA-270/008
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:08:21. **Bukatu:** 00:10:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Fanpuenean (bikotearen baserrian) ez dute hika egiten. Bere bikoteak koadrilakoekin dena hika egiten du, baina nesken artean ez da egiten. "Atsoen" eta "baserritarren" kontutzat zuen berak ere, punturarte.</p>

6. Gaztelania, sasoi batean euskararen aurretik

- **Erref:** ONA-270/010
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:11:53. **Bukatu:** 00:13:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Baserritar konplexuak emakumeen artean hitanoaren galeran izan duen eraginaz dihardu. Hitanoa gutxietsita egon da. Bere eskola garaian ere gaztelaniaz hitz egitea hobeto zegoen ikusita euskaraz hitz egitea baino. Etxetik kanpora ez du hika egiteko aukera handirik izan. Berarentzat etxean erabiltzeko hizkuntza da.</p>

7. Pertzeptzio aldaketa hitanoaren gainean

- **Erref:** ONA-270/011
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:13:49. **Bukatu:** 00:15:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Pertzeptzio aldaketa izan du. Lehen baserritarren kontutzat zeukan, eta orain, berriz, gehiago baloratzen du. Mutil gazteen artean "guay" da hika egitea.</p>

8. Hika egiten duten emakumeen perfila

- **Erref:** ONA-270/013
- **Iraupena:** 0:03:42. **Hasi:** 00:16:26. **Bukatu:** 00:20:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Hika egiten duten emakumeen perfila zein den: errebeldia puntu bat ikusten du Nereak. Familia oso elizkoietan gutxiago mantendu ote den...

Etxean naturaltasunez jaso duenez, berak ere egiten dio hika bere alabari batzuetan. Alabak 10 urte ditu.</p>

9. Hitanoa ez emakume finentzat

- **Erref:** ONA-270/015
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:22:52. **Bukatu:** 00:25:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Zergatik gorde da mutilen artean eta nesken artean ez? Errespetuaren kontua ikusten du hor Nereak. Emakumeak fina izan behar horretan hitanoa baztertu egin da.</p>

10. Erdararako joera emakumeen artean

- **Erref:** ONA-270/016
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:25:41. **Bukatu:** 00:28:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Adin bateko emakume euskaldunen artean ikusten du erdararako joera bat gizonezkoen artean ez duena ikusten. Sasoi bateko pentsakera: erderaz zebilen emakumea "finagoa" zela euskaraz zebilena baino, eta hika egiten zuena are baldarragoa zela.</p>

11. Amarekin gero eta gehiago hika

- **Erref:** ONA-270/019
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:30:47. **Bukatu:** 00:32:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Ahizpen artean gutxi egiten dute hika. Ez dira saiatu ere egin. Berak gehiago egiten du amarekin bere ahizpak baino.</p>

12. Mutil gazteek ez dakite noka

- **Erref:** ONA-270/021
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:32:31. **Bukatu:** 00:35:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Bere adineko nesken artean ez du hitanorik entzuten. Bi aipatzen ditu, badakitenak. Adin bateko gizonezkoek badakite noka, baina mutil gazteek ez.</p>

13. Hitanoa hurbiltasunarekin lotzen du

- **Erref:** ONA-270/022
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:35:21. **Bukatu:** 00:37:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Hitanoa hurbiltasunarekin lotzen du, laguntasunarekin, konplizitatearekin. Lanean hika egiten dio neska batek. Galtzea pena litzateke, eta hori gerta ez dadin, dakitenek transmititu egin beharko luketela dio.</p>

14. Ingo xonau!

- **Erref:** ONA-270/024
- **Iraupena:** 0:00:05. **Hasi:** 00:38:50. **Bukatu:** 00:38:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak

Laburpena:

Ingo xonau! esaten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-05

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com